OIARTZUNGO
UDALA

KONTRATAZIO TEKNIKARIA-LETRADU LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA

Azterketa teoriko-praktikoa

<u>Bigarren ariketa: 50 puntu.</u>

Oiartzungo Udalak, prebentzio jarduera modu integralean, eraginkorrean eta aplikagarria den araudiarekin bat etorriz egiten dela bermatzeko, laneko arriskuen prebentzioko eta osasunaren zaintzarako zerbitzua eman behar du. Udalak ez duenez horretarako baliabide nahikorik, zerbitzua kanpo enpresa baten bidez eman nahi da. Zerbitzuaren hasierako iraupena bi urtekoa izatea nahi da, eta udal zerbitzu teknikoek epe hori kontuan hartuta 60.000 euroko gehieneko gastua aurreikusi dute, BEZik gabe (72.600 eurokoa, BEZa barne). Halere, urtez urte luzagarria izatea nahi da, lau urtera arte. Udalaren aurrekontuko ohiko baliabideak 20.000.000 eurokoak dira.

Alkateak kontratazio espedienteari hasiera emateko txostena egiteko eskatu dizu, lehenbailehen esleitu nahi duela adieraziz. Egin txostena, gutxienez honakoak jasota:

a. Kontratuaren xedea eta beharra. 2 puntu.

   Kontratuaren xedea ondo definitu behar da (0,5 puntu) eta kontratuarekin Oiartzungo Udalak ase nahi duen beharra adierazi eta arrazoitu behar da (0,5 puntu).

   Halaber, zerbitzu kontratua izanik, Oiartzungo Udalaren baliabide nahikorik eza aipatu behar da (0,5 puntu) eta behar bezala arrazoitu eta justifikatu behar da (0,5 puntu).

b. Kontratu mota eta izaera. 4 puntu.

   Zerbitzu kontratua da (puntu 1), administratiboa (puntu 1), eta ez da erregulazio harmonizatuaren mendekoa (2 puntu).

c. Sortetan banatzeko proposamena, edo ez banatzeko arrazoiak. 2 puntu.

   Kontratuaren xedea sortetan banatzea erabakitzen bada, proposamen zehatza egin behar da (puntu 1), eta sortetako bakoitzaren xedea zein izango den azaldu behar da (puntu 1).

   ***Bestela,** sortetan ez banatzeko proposamena egin beharko da (puntu 1), SPKLren 99.3 artikuluko arrazoiekin behar bezala justifikatuta, edo beste arrazoiren batekin, artikulu hori errespetatuz justifikatzen bada (puntu 1).*

d. Oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia. 2 puntu.

   Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 72.600 eurokoa da (BEZa barne) (puntu 1).

Kontratuaren balio zenbatetsia 120.000 eurokoa da (BEZik gabe) (puntu 1).

e. Lizitazio prozedurarik egokiena eta prozeduraren ezaugarri nagusiak. 6 puntu.

SPKLren 159. artikuluan arautzen den prozedura irekia erraztua (2 puntu).

SPKLren 159.6 artikuluko prozedura ireki oso erraztua ez da onartzen, balio zenbatetsia 60.000 eurotik gorakoa delako. SPKLren 156. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen den prozedura irekia ezta ere, lehenbailehen esleitu nahi dela adierazi delako. Prozedura irekia, urgentziazko izapidetzearekin, ondo justifikatuz gero onartu liteke.

Jarraituko den prozeduraren ezaugarri nagusienak ere aipatu behar dira (4 puntu).

Prozedura ireki erraztuaren kasuan:

- *Balio judizioen bidez ebaluatzeko esleipen irizpiderik ez egotea edo, baldin badaude, horien puntuazioak guztiaren %25a ez gainditzea.*
- *Lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean soilik argitaratzeko beharra, eta dokumentu guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskuragarri egotea argitalpen hori egiten den egunetik aurrera.*
- *Eskaintzak aurkezteko epea gutxienez 15 egunekoa izatea iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.*
- *Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denerako Sektore Publikoko Lizitatzaileen Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo autonomia erkidegokoan izena emanda egoteko beharra.*
- *Behin-behineko bermea ez eratu behar izatea.*
- *Proposamenak soilik iragarkian adierazitako erregistroan aurkezteko betebeharra, eta eskaintzarekin batera ardurapeko adierazpena aurkeztu beharra.*
- *Balio judizioen arabera kuantifikatzen diren esleipen irizpiderik ezartzen ez denean, eskaintza artxibo elektroniko bakarrean aurkeztea.*

Prozedura irekia urgentziazko izapidetzearekin jarraitzea behar bezala arrazoitzen bada, prozedura irekiaren ezaugarri nagusiak adierazi beharko dira, urgentziaz izapidetzeak prozedura horretan duen eragina azalduz.

f. Kaudimen baldintzak, sailkapenaren eskakizuna, erregistroa. 4 puntu.

SPKLk aipatzen dituen kaudimena egiaztatzeko moduen artean kasu honetan aplikatuko diren baldintza zehatzak proposatu behar dira, kopuruaren proposamenarekin eta egiaztatzeko bitartekoekin, kaudimen ekonomiko-finantzarioari (puntu 1) nahiz kaudimen tekniko edo profesionalari dagokionean (puntu 1). Kontratura giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa ere jar daiteke.

Adierazi behar da kasu honetan sailkapena ez dela beharrezkoa (puntu 1).

Bestalde, prozedura ireki erraztuan egonik, Sektore Publikoko Lizitatzaileen Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo autonomia erkidegokoan izena emanda egoteko beharra adierazi behar da, baloratuko delarik aipatzea lehia urratzen bada betebehar hori salbuetsi daitekeela. Prozedura irekia urgentziaz izapidetzea aukeratuz gero, puntu honetan aipatu beharko denak horrekin koherentea izan beharko du (puntu 1).

g. Esleipen irizpideak (motak eta adibideak). 6 puntu.

Esleipen irizpideak balio judizioen mendekoak edo automatikoak (formulen aplikazioaren bidez ebaluatzekoak) izan daitezkeela aipatu behar da. Aintzat hartuta, prozedura ireki erraztuan ezin dela aurreikusi balio judizioen bidez ebaluatzeko esleipen irizpiderik edo, baldin badaude, horien puntuazioak ezingo duela guztiaren %25a gainditu (2 puntu).

Jarraian, kasu honetan aplikatu beharreko esleipen irizpide zehatzen proposamena jaso beharko da, esleipen horietako bakoitza zein motakoa den adieraziz eta nola puntuatuko den xehetasunez azalduz. Kontuan hartu behar da SPKLk irizpide automatikoak lehenesten dituela, beraz, balio judiziozkoak proposatzen badira justifikatu egin beharko da zergatia. Berdintasun legeak, bestalde, esleipen irizpideen puntuazioaren %5 generoarekin zerikusia duten irizpideei esleitu behar zaiela dio, eta hori ere aipatu beharko da, adibideak jarriz (4 puntu).

h. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak. 4 puntu.

SPKLren 202. artikuluarekin adostasunean, gutxienez kontratua gauzatzeko baldintza berezi bat ezarri behar da, kontratuaren xedearekin lotura duena. Kasu honetarako egiten den proposamen zehatza baloratuko da, behar bezala definitu eta arrazoitu beharko dena (4 puntu).

i. Bermea. 2 puntu.

Prozedura ireki erraztuan behin behineko bermea jartzea ez dagokiola aipatu behar da (puntu 1).

Behin betiko bermea esleipen prezioaren % 5ekoa izango da, BEZik gabe (puntu 1).

Edonola ere, prozedura irekia urgentziaz izapidetzea aukeratuz gero, puntu honetan aipatu beharko denak horrekin koherentea izan beharko du.

j. Espedientearen gutxieneko edukia, onartu eta lizitazioari hasiera emateko. 4 puntu.

SPKLaren 116.3 artikuluaren arabera, espedientean barneratu behar dira baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiria (0,5 puntu), baldintza teknikoen agiria (0,5 puntu), kreditua izatearen ziurtagiria (0,5 puntu) eta kontuhartzailetzaren aurre fiskalizazioa (0,5 puntu).

Horrez gain, adierazi behar da SPKLren 116.4 artikuluaren baitan espedientean behar bezala arrazoitu behar dela:

- *Lizitazio prozeduraren hautaketa (0,25 puntu)*
- *Kaudimen irizpideak (0,25 puntu), esleipen irizpideak (0,25 puntu) eta exekuziorako baldintza bereziak (0,25 puntu)*
- *Balio zenbatetsia (0,25 puntu)*
- *Ase nahi den administrazioaren beharra (0,25 puntu)*
- *Baliabide nahikorik eza (0,25 puntu)*
- *Kontratuaren xedea sortetan ez banatzeko erabakia, bere kasuan (0,25 puntu)*

k. Kontratazio organo eskuduna. 2 puntu.

Alkatea (2 puntu).

l. Argitalpen betebeharrak. 1 puntu.

Lizitazioaren iragarkia Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu behar da, zeina Euskadiko Kontratazio Plataforman dagoen (puntu 1).

m. Eskaintzak aurkezteko epea. 1 puntu.

Prozedura ireki erraztuan, lizitazioaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egunekoa. Prozedura irekia urgentziaz izapidetzea aukeratuz gero, puntu honetan aipatu beharko denak horrekin koherentea izan beharko du (puntu 1).

Eduki horrez gain, txostenaren egitura, egokitasuna, koherentzia eta azalpenen argitasuna baloratuko dira. 10 puntu.

Hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzen ez bada, 5 puntura arte jaitsi ahal izango da ariketaren emaitza. Halaber, bi ortografia hutsegiteko 0,5 puntu kenduko dira.

OIARTZUNGO
UDALA

PROCESO SELECTIVO PARA LA COBERTURA TEMPORAL DEL PUESTO DE TÉCNICA/O DE CONTRATACIÓN-LETRADA/O

Examen teórico-práctico

Segundo ejercicio: 50 puntos.

El Ayuntamiento de Oiartzun debe prestar el servicio de prevención de riesgos laborales y vigilancia de la salud, para garantizar que la actividad preventiva se lleve a cabo de forma integral, eficaz y conforme a la normativa aplicable. Dado que el Ayuntamiento no dispone de medios suficientes para ello, se pretende prestar el servicio a través de una empresa externa. Se quiere que la duración inicial del servicio sea de dos años, y los servicios técnicos municipales, teniendo en cuenta dicho plazo, han previsto un gasto máximo de 60.000 euros, sin IVA (72.600 euros, con IVA). Sin embargo, se quiere que pueda prorrogarse anualmente, hasta un máximo de cuatro años. Los recursos ordinarios del presupuesto municipal ascienden a 20.000.000 de euros.

La alcaldesa te ha solicitado que elabore un informe para iniciar el expediente de contratación, indicando que desea adjudicarlo lo antes posible. Elabora el informe incluyendo, al menos, los siguientes aspectos:

a. Objeto y necesidad del contrato. 2 puntos.

   Se debe definir bien el objeto del contrato (0,5 puntos), y señalar y motivar la necesidad que el Ayuntamiento de Oiartzun quiere satisfacer con el contrato (0,5 puntos).

   Asimismo, tratándose de un contrato de servicios, debe mencionarse la falta de medios suficientes del Ayuntamiento de Oiartzun (0,5 puntos) y razonarlo y justificarlo debidamente (0,5 puntos).

b. Tipo y naturaleza del contrato. 4 puntos.

   Se trata de un contrato de servicios (1 punto), administrativo (1 punto), no sujeto a regulación armonizada (2 puntos).

c. Propuesta de división en lotes, o motivos para no dividirlo. 2 puntos.

   Si se opta por dividir el objeto del contrato en lotes, se debe realizar una propuesta concreta (1 punto), indicando el objeto de cada uno de los lotes (1 punto).

   ***En caso contrario**, se deberá proponer la no división en lotes (1 punto), justificándolo debidamente con los motivos del artículo 99.3 de la LCSP, o con otro motivo, siempre que se justifique respetando dicho artículo (1 punto).*

d. Presupuesto base de licitación y valor estimado del contrato. 2 puntos.

El presupuesto base de licitación es de 72.600 euros (con IVA) (1 punto).

El valor estimado del contrato es de 120.000 euros (sin IVA) (1 punto).

e. Procedimiento de licitación más adecuado y sus principales características. 6 puntos.

Procedimiento abierto simplificado regulado en el artículo 159 de la LCSP (2 puntos).

No se admite el procedimiento abierto supersimplificado del artículo 159.6 de la LCSP por ser el valor estimado superior a 60.000 euros. Tampoco el procedimiento abierto recogido en los artículos 156 y siguientes de la LCSP, por haberse manifestado la voluntad de proceder a su adjudicación a la mayor brevedad posible. El procedimiento abierto, con tramitación de urgencia, podría ser admitido si se justificara debidamente.

También hay que señalar las principales características del procedimiento que se va a seguir (4 puntos).

En el caso del procedimiento abierto simplificado:

- *Que no haya criterios de adjudicación evaluables mediante juicio de valor o, de haberlos, que su ponderación no supere el 25% del total.*
- *El anuncio de licitación únicamente precisará de publicación en el perfil de contratante. Toda la documentación tiene que estar disponible por medios electrónicos desde el día de la publicación del anuncio.*
- *El plazo para la presentación de proposiciones será de al menos 15 días a contar desde el siguiente a la publicación del anuncio.*
- *Deber de inscribirse en el Registro Oficial de Empresas Licitadoras y Clasificadas del Sector Público, o en el de la correspondiente comunidad autónoma, para la fecha final de presentación de ofertas.*
- *La no constitución de la garantía provisional.*
- *Deber de presentar las proposiciones únicamente en el registro indicado en el anuncio de licitación, y deber de presentar una declaración responsable junto con la propuesta.*
- *Si no se contemplan criterios de adjudicación cuya cuantificación dependa de un juicio de valor, presentación de la oferta en un único archivo electrónico.*

En el caso de que se justifique debidamente seguir el procedimiento abierto tramitado de urgencia, se deberán indicar las principales características del procedimiento abierto, explicando la incidencia de la tramitación de urgencia en el mismo.

f. Requisitos de solvencia, exigencia de clasificación y registro. 4 puntos.

Entre las formas de acreditación de la solvencia a las que se refiere la LCSP deben proponerse las condiciones concretas que se aplicarán en este caso, con propuesta de cuantía y los medios con los que se acreditará, tanto en lo que se refiere a la solvencia económico-financiera (1 punto) como a la solvencia técnica o profesional (1 punto). También cabe el compromiso de adscripción de medios humanos al contrato

Hay que indicar que en este caso la clasificación no es necesaria (1 punto).

Por otra parte, estando en el procedimiento abierto simplificado, debe indicarse la necesidad de estar inscrita/o en el Registro Oficial de Empresas Licitadoras y Clasificadas del Sector Público o en el de la comunidad autónoma, valorándose la mención de que la limitación de la concurrencia puede eximir de esta obligación. En el caso de optar por el procedimiento abierto tramitado de urgencia, lo que deberá mencionarse en este punto deberá ser coherente con ello (1 punto).

g. Criterios de adjudicación (tipos y ejemplos). 6 puntos.

Hay que señalar que los criterios de adjudicación pueden ser dependientes de juicios de valor o automáticos (evaluables mediante la aplicación de fórmulas). Considerando que en el procedimiento abierto simplificado no se pueden prever criterios de adjudicación evaluables mediante juicios de valor o, en su caso, su puntuación no podrá superar el 25% del total (2 puntos).

A continuación, deberá recogerse la propuesta de criterios de adjudicación concretos a aplicar en este caso, con indicación del tipo de cada una de ellas y su puntuación, explicada de forma detallada. Hay que tener en cuenta que la LCSP prioriza los criterios automáticos, por lo que si se proponen los sujetos a valores judiciales habrá que justificar el porqué. La ley de igualdad, por su parte, señala que el 5% de la puntuación de los criterios de adjudicación debe referirse a criterios relacionados con el género, que también habrá que citar poniendo ejemplos (4 puntos).

h. Condiciones especiales de ejecución del contrato. 4 puntos.

De acuerdo con el artículo 202 de la LCSP, debe establecerse al menos una condición especial de ejecución del contrato que guarde relación con el objeto del mismo. Se valorará la propuesta concreta que se realice para este caso, que deberá ser convenientemente definida y motivada (4 puntos).

i. Garantía. 2 puntos.

Hay que señalar que en el procedimiento abierto simplificado no corresponde constituir garantía provisional (1 punto).

La garantía definitiva será del 5% del precio final ofertado, IVA excluido (1 punto).

En cualquier caso, si se opta por el procedimiento abierto tramitado de urgencia, lo que se mencione en este punto deberá ser coherente con ello.

j. Contenido mínimo del expediente, para aprobarlo e iniciar la licitación. 4 puntos.

De acuerdo con el artículo 116.3 de la LCSP, debe incorporarse al expediente el pliego de condiciones económico-administrativas particulares (0,5 puntos), el pliego de prescripciones técnicas (0,5 puntos), el certificado de existencia de crédito (0,5 puntos) y la fiscalización previa de la intervención (0,5 puntos).

Además, debe señalarse que, en el marco del artículo 116.4 de la LCSP, en el expediente debe motivarse debidamente:

- *La elección del procedimiento de licitación (0,25 puntos)*
- *Los criterios de solvencia (0,25 puntos), criterios de adjudicación (0,25 puntos) y las condiciones especiales de ejecución (0,25 puntos)*
- *El valor estimado (0,25 puntos)*
- *La necesidad de la administración que se pretende satisfacer (0,25 puntos)*
- *La insuficiencia de medios (0,25 puntos)*
- *La decisión de no dividir en lotes el objeto del contrato, en su caso (0,25 puntos)*

k. Órgano de contratación competente. 2 puntos.

La alcaldesa (2 puntos).

l. Obligaciones de publicidad. 1 punto.

El anuncio de licitación se publicará en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Oiartzun, alojada en la Plataforma de Contratación de Euskadi (1 punto).

m. Plazo de presentación de ofertas. 1 punto.

En el procedimiento abierto simplificado, de 15 días a contar desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación. En el caso de optar por el procedimiento abierto tramitado de urgencia, lo que se mencione en este punto deberá ser coherente con ello (1 punto).

Además de dicho contenido, se valorarán la estructura, la adecuación y la coherencia del informe, así como la claridad de las explicaciones. 10 puntos.

Si no se utiliza un lenguaje no sexista e inclusivo, la calificación del ejercicio podrá reducirse hasta en 5 puntos. Asimismo, se descontarán 0,5 puntos por cada dos faltas de ortografía.